

2.1.3. GOBERNU ORGANOAK. ALKATETZA. KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA

Iruñeko Udaleko Komunikazio Zerbitzuak 1.891 prentsa-ohar igorri zituen 2018an, aurreko urtean baino % 1,2 gutxiago (1.913 udal-informazio igorri zituen orduan). Martxoan, maiatzean eta urrian bidali da informazio gehien (170 prentsa-ohar baino gehiago hilabete horietako bakoitzean). Kultura da prentsa-ohar gehien egin dituen alorra; igorritako informazioen heren bat, zehazki. Urtean, 287 deialdi baino gehiago egin zitzaizkien hedabideei, besteak beste ekitaldi, inaugurazio, erakusketa eta prentsaurrekoetarako.

	2014	2015	2016	2017	2018
Prentsa-oharrak	1.582	1.636	1.844	1.913	1.891
Hedabideen deialdiak	215	187	281	270	287

OSOKO BILKUREN, BATZORDEEN ETA PRENTSAURREKOEN ZUZENEKO ETA AURREZ GRABATUTAKO EMANALDIETARA SARTZEA

	2017		2018	
	Zuzenekoa	Aurrez grabaturik	Zuzenekoa	Aurrez grabaturik
Osoko bilkurak	12.891	816	22.054	1.651
Batzordeak	17.361	1.232	15.772	2.602
Prentsaurrekoak	9.298	9.597	12.303	15.322

Sanferminek erreferente mediatiko eta informatibo bat izaten jarraitzen dute. Mundu osoko 130 komunikabidetako 400 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri dira Iruñera 2018an, jaietako entzierroen berri ematera. Freelance argazkilariek, Estatuko zein nazioarteko agentziek, hainbat herrialdetako egunkariak, irratiek, zinema- eta telebista-ekoiztetxeak eta beste zenbaitek interesa agertu dute entzierroen inguruan. Iruñeko Udalak akreditatutako profesionalak hamar bat herrialdetatik etorri dira: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Argentina, Txina, Mexiko, Alemania, Italia, Txekiar Errepublika eta Kroazia.

2018KO SANFERMINETAKO AKREDITAZIOAK: TXUPINAZOA, ENTZIERROA ETA GAIXOA NI

	2018	
	Akreditatu kopurua	Hedabide kopurua
Txupinazoa	160	45
Entzierroa	400	130
Gaixoa ni	90	35